

### 1 ARIKETA

Ondorengo testuak Udaltzarreko gai-zerrenda aztertzen hasi aurreko gertakari baten berri ematen du. Ipin ezazu berori atal baten (*Sarrera* edo *Esan-eginak* eta *erabakiak*) barruan eta tarteki baten pean. Ostean, arrazoitu erabakia. Bestalde, hartzailea herritar oro dela kontuan izanik, berrikus itzazu puntuazioa, esaldiko osagaien ordena eta gramatika-egiturak, komunikazioa errazteko helburuarekin. Gogoan izan, berridazteari ekin aurretik, Alkatearen esanak estilo zuzenean edo zehar estiloan eman ditzakezula, baina zinegotzi-taldearen idatzia bere horretan utzi behar duzula, edota, gehienez ere, baliabide tipografikoekin joka dezakezula.

Gai zerrenda tratatzen hasi aurretik Petri Petrikilok hartu du hitza eta BBko zinegotzi taldearen ondorengo idatzia irakurri du:

"Belagua Udaleko Berri Berriko zinegotzi taldeak zera adierazi nahi du gaurko dataz burutuko den Osoko Bilkuraren aurrean:

.../...

Hemen aurkitzen garen zinegotziok (oporretan gaudelako daukagu egoteko aukera) zinegotzi taldearen izenean salatu nahi dugu dei honen desegokitasuna; ez baitzaigu zilegi iruditzen bestelako premia larririk gabe honelako denbora eta diru-galerak gauzatea eta ondorioz, guk geuk ere Osoko Bilkura honetatik alde egitea erabaki dugu."

Alkateak erantzun die Idazkariak ohartarazi zuela baina nola tramitezko gaiak ziren eta azkar pasatzekoak ez ziola garrantzi handirik eman eta ostelenerako presazko deialdia luzatzea posible bazen ere ez zuela horrela jokatu, hurrengorako kontuan izango duelarik.

Ondoren Pleno aretatik alde egin dute BBko zinegotzi diren Petri Petrikilo eta Petra Prieto J./A.ek.

### 2 ARIKETA

Honako hau Udaltzarren batean aztertu zen gai bat duzu. Bana ezazu edukia bi tartekiren pean eta berridatz itzazu lehen bi esaldiak "kontuan izanik" formula erabili gabe. Bideanabar, egoki irudituz gero, beste aldaketaren bat ere egin dezakezu. Esaterako, bi esaldi bildu paragrafo batera, ordenari erreparatu, ortografia zuzendu etabar.

#### 12.- Etxez etxeko laguntza arautzen duen erregelamenduari behin-betiko onarpenera ematea.

Kontuan izanik Udaltzatzak 1996ko azaroaren 2an egindako bileran hasierako onarpenera eman ziola etxez etxeko laguntza arautzen duen erregelamenduari.

Kontuan izanik jendeaurrean egon den epean ez dela inongo ohartarazpen edo iradokizunik aurkeztu.

Udaltzatza osatzen duten 17 kideetatik bertaratutako 10ek, aho batez, aipatutako erregelamenduari behin-betiko onarpenera ematea erabaki dute.

# ARIKETA K

## 3 ARIKETA

Ondoko testuak mozio baten bozketaren emaitza jasotzen du. Saia zaitetz datuak sailkatuta ematen, errazago bistara daitezten.

Bozketaren arrunta egin ondoren, idazkariak honako emaitza hau izan dela azaldu du:

Bozketan 15 zinegotzik hartu dute parte. Mozioaren alde eman dute botoa SPEko Miren Elexpurrak, AAKo Andoni Perezek eta BIPEko Felipe Madariagak, Karmen Albenizek, Federiko Arrutik eta Alex Ugaldek. Aurkako botoa eman dute IJko Isidro Gonzalezek, Itziar Mateok, Maddi Muñozek eta Agurtzane Bermeok. Abstenitu egin dira (...)

Beraz, goian zehazturiko gehiengoarekin Udaltzarrak erabaki hau hartu du.

## G R A M A T I K A

## 4 ARIKETA

Zuzendu Kaxildo Alkortaeren artikulua lehen parrafoak, egileak berak artikuluan (16. orr.) esandakoaren arabera; alegia, euskal aditzaren berezko joera errespetatuta.

Lehenengo batean **etortzen zitzaidan** Administrazioa Euskaraz aldizkariko artikulua enkargatzen diluena eta **esaten zidan**:

- Idazten diguzu** artikulutxo bat datorren alean argitaratzeko?
- Ederrarengana **jotzen duzu** artikulua eske. Baina bai, **idazten dizuet**. Noizko edo?
- Aste honetan ezin baduzu, **idazten duzu** datorren astean eta... Egindakoan **ekartzen diguzu** eta **hitz egiten dugu**. Bala?

## 5 ARIKETA

Egin itzazu beharrezko aldaketak, ondorengo testuaren puntuazioa hobetzeko:

### Hamar urteko gazi-gozoek

Duela sei urte inguru iritsi nintzen Nafarroako Unibertsitate Publikora. NUP oso unibertsitate gaztea da eta izugarritzko aldaketak gertatu dira oso denbora gutxian.

Artean ez zegoen estatuturik, arautegirik, unibertsitate Klaustrorik, Gobernu Batzorderik...; orain, aldiz, Arrosadia kanpua ia osatua dago, NUPek 10.000 ikasle baino gehiago ditu eta sortu dira gobernu erakundeak.

Hizkuntz politikari dagokionez, garai hartan errotulo soil batzuk euskaratzen ziren bakarrik eta hori zen NUPeko agintariak euskararen alde egiten zuten gauza bakarra. Oro har, NUPen ez dira gauzak gaizki egin. Zuhur jokatu da titulazioak jartzeko orduan, batzuetan agian zuhurregi, Nafarroako Unibertsitatea ondoan dugulako edo. Batzuetan ematen zuen harri begira egiten zirela gauzak: han zer zegoen ikusi eta hemen beste gauza bat jartzen zela, titulazioak bikoiztu gabe eta elkarren artean haserretu gabe. Aintzat hartu behar da Nafarroako gizartearen Nafarroako Unibertsitatea dela kalitatearen eta prestigioaren erreferentzia, eta horrek bideratu egin du NUPen ibilbidea gauza erabakitzeke eta egiteke orduan. Zuhur jokatzeko joera ezarri dugu.

NUP gaztea da oraindik eta heldu egin behar du. Zaila da esatea, hain urte gutxi pasa direnez, zertan huts egin den. Zenbait urte barru jakingo dugu zertan huts egin dugun, benetan zer egin behar zen.

NUPen hutsune nagusienetarikoa bat euskarari eskaintzen zaion arreta eta borondate falta da. .../... NUP sortu zenean unibertsitate eta komunitate askotan indarrean ziren hizkuntz normalizaziorako planak. Mahai gainean hainbat esperientzia genituen, NUP benetako unibertsitate elebiduna bihurtzeko edo gauzak askoz ere hobeto egiteko. Hala ere, garai hartan ez zen ezer egin...

.../...

Horretaz gain, NUPek aintzat hartu behar du gizarteak zer behar duen, oraindik ez baitu aztertu. Isteera profesional gehien duten titulazioak teknikoak dira; baina unibertsitateak ez dio begiratu behar lan merkatuari bakarrik, baizita gizartearen beharrei ere.

.../...

## L A N E A N E U S K A R A Z

## ADMINISTRAZIO-IDAIZKIAK

### 1 Ariketa

Testua *Sarrera* atalean jasotzea da egokiena, bilkura hasi aurretik gertaturiko gora-behera delako, ez bilkuran jasotakoa. *Eranskinak* atalean ematea ere ez da oso bidezkoa, zeren eta, horretan, txostenak, azterlanak, mozio luzeak eta antzekoak biltzen baitira, eskuarki. Zinegotzi-taldearen idatziari dagokionez, komatxo bikoitzen artean eman daiteke edo letra italikoarekin.

#### Gora-beherak

Gai-zerrendaz hitz egiten hasi aurretik, Petri Petrikilok hartu du hitza eta BBko zinegotzi-taldearen idatzi hau irakurri du:

*Belagua Udaleko Berri Berriko zinegotzi taldeak zera adierazi nahi du gaurko dataz burutuko den Osoko Bilkuraren aurrean:*

./...

*Hemen aurkitzen garen zinegotziok (oporretan gaudelako daukagu egoteko aukera) zinegotzi taldearen izenean salatu nahi dugu dei honen desegokitasuna; ez baitzaigu zilegi iruditzen bestelako premia larririk gabe honelako denbora eta diru-galerak gauzatzea eta ondorioz, guk geuk ere Osoko Bilkura honetatik alde egitea erabaki dugu.*

#### Zehar estiloa

Alkateak erantzun dio idazkariak ohartarazi zuela, baina, nola tramitezko gaiak ziren eta azkar pasatzekoak, ez ziola garrantzi handirik eman, eta, posible bazen ere astelehenerako presazko deialdia luzatzea, ez zuela horrela jokatu; dena den, kontuan izango duela hurrengorako.

#### Estilo zuzena

Idazkariak ohartarazi ninduen —erantzun dio Alkateak—, baina, nola tramitezko gaiak ziren eta azkar pasatzekoak, ez nion garrantzi handirik eman; eta, astelehenerako presazko deialdia luzatzea posible bazen ere, ez nuen horrela jokatu. Dena den, kontuan izango dut hurrengorako.

Ondoren Pleno Aretotik alde egin dute BBko Petra Prieto eta Petri Petrikilo zinegotziak.

### 2 Ariketa

12.- Etxez Etxeko Laguntza arautzen duen Erregelamenduari behin-betiko onarpenera ematea.

#### Azalpena (Aurrekariak)

Udalbatzak hasierako onarpenera eman zion Etxez Etxeko Laguntza arautzen duen Erregelamenduari, 1996ko azaroaren 2ko bilkuran. Geroztik, jendaurrean erakusteko epea ere bete da, eta inork ez du aurkeztu ohartarazpenik edo iradokizunik.

#### Erabakia

Udalbatza osatzen duten 17 kideetatik bertaraturiko 10ek aho batez erabaki dute Etxez Etxeko Laguntza arautzen duen Erregelamendua behin-betiko onartzea.

### 3 Ariketa

#### MOZIOAREN BOZKETA

• Bozketan parte hartu duten zinegotziak:	15
• Mozioaren aldeko botoak:	6
• Boto-emaeleak: Felipe Madariaga, Karmen Albeniz, Federico Arruti eta Alex Ugaldé, BIPeko zinegotziak; Miren Elexpuru, SPEko zinegotzia; eta Andoni Perez, AAKo zinegotzia.	
• Mozioaren aurkako botoak:	4
• Boto-emaeleak: Itziar Mateo, Isidro Gonzalez, Maddi Muñoz eta Agurtzane Bermeo, IUKo zinegotziak.	
• Abstentzioak:	5
• Boto-emaeleak: Amaia Beltran, Nerea Navarro, Ismael Oiarzabal, Pello Oloriaga eta Imanol Larrinaga, MILEko zinegotziak.	

#### Mozioaren gaineko erabakia

# S O L U Z I O A K

## GRAMATIKA

### 4 Ariketa

Lehenengo batean **etorri zitzaidan** *Administrazioa Euskaraz* aldizkariko artikulua enkargatzen dituen eta **esan zidan**:

- **Idatziko diguzu** artikulutxo bat datorren alean argitaratzeko?
- Ederrarengana **jo duzu** artikuluan eske. Baina bai, **idatziko dizuet**. Noizko edo?
- Aste honetan ezin baduzu, **idatzi** datorren astean eta... Egindakoan **ekarri** eta **hitz egingo dugu**. *Bale?*

## LANEAN EUSKARAZ

### 5 Ariketa

1. Lehenengo parrafoko lehen esaldiko *Duela sei urte inguru* horrek ez du koma atzetik, esaldi horretan informazio nagusia baita (noiz iritsi).

2. Bigarren parrafoan bi ideia nagusi ditugu, oposizioan agertzen direnak (*Artean ez/ orain bai*). Oposizio hori nabarmentzea nahikoa arrazoi da autore gehienentzat puntu eta koma jartzeko. Dena dela, eta horretaz gain, badago beste arrazoi bat: maila berean dauden ideia horiek mugatzeko koma eskasa suertatzen da, lehenengoak baditu eta komaz bereiztu beharreko zatiak.

Bestalde, *aldiz bezalako* lokailuek koma artean joan behar dute, ideien arteko zer harreman dagoen zehazteko erabiltzen dira eta.

3. Hirugarren parrafoan, *Hizkuntz politikari dagokionez* horren atzean koma joan behar du, gaia ezartzeko erabiltzen den formula bat baita.

Bestalde, parrafo bereko laugarren esaldian hiru ideia ditugu, komaz bereizten direnak. Baina ideia horiek ez dira maila berekoak: bigarrena lehenaren azalpena da (ohar zaitzete marka bera dutela, *-ela*, alegia) eta hirugarrena bigarrenaren informazioa zehazten du. Beraz, lehen eta bigarrenaren artean bi puntu jarri behar dira.

Azkenik, bosgarren esaldiko *Aintzat hartu behar da* horrek ez du koma atzetik, ezin baita etenik jarri aditza eta bere osagai zuzenen artean (*Aintzat hartu behar da, zer?*)...

4. Laugarren parrafoko bigarren esaldian *Zaila da esatea* horrek koma behar du atzean; hortaz, argi gelditzen da zein den esaldi nagusia (*Zaila da esatea zertan huts egin den*) eta zein esaldi nagusian tartekatzen den informazio osagarria.

5. Bosgarren parrafoko laugarren esaldiko *Hala ere* horrek koma artean joan behar du (ik. 2.).

6. Seigarren parrafoko lehen esaldiko *Horretaz gain* horrek koma behar du atzean (ik. 2. eta 5.).

Bestalde, hurrengo esaldian hiru ideia ditugu: lehenengo biak komaz bereizten dira eta hirugarrena puntu eta komaz. Puntuazio hori ez da zuzena, bigarrenaren aurrean dagoen "baina" horrek maila berean dauden ondorengo ideia biak hartzen baititu.

Beraz, hauxe da puntuazio zuzena: \_\_\_\_\_; *baina* \_\_\_\_ *ez* \_\_\_\_ *bakarrik*, *baita* \_\_\_\_\_ *ere*.